



IZANGO BALITZ, BAINA EZ BADA

JENNI ALVARADO





IZANGO BALITZ, BAINA EZ BADA
Jenni Alvarado

Data / Fechas
2026eko martxoaren 12tik apirilaren 25era
Del 12 de marzo al 25 de abril de 2026

Produkzioa / Producción
ZAS Kultur Espazioa • Vitoria-Gasteiz

Testua / Texto
Iñaki Larrimbe

Diseinu eta maketazioa / Diseño y maquetación
Ibon Sáenz de Olazagoitia



IZANGO BALITZ, BAINA EZ BADA

Jenni Alvarado

En *Izango balitz, baina ez bada*, Jenni Alvarado despliega un conjunto de pinturas sobre papel que no se dejan leer como una serie cerrada. Lo que esta exposición reúne en Zas Kultur es el rastro visible de un proceso largo, en el que escultura, acción, vídeo, paisaje y pintura se han ido rozando hasta alterar su lugar inicial. Aquí la pintura no llega para ordenar lo anterior, sino para recoger sus restos y volver a ponerlos en circulación.

El origen de muchas de estas obras está en artefactos escultóricos concebidos inicialmente para grabaciones. Esos objetos, a veces acompañados de telas, lazos u otros materiales, eran trasladados a distintos paisajes y activados en pequeñas acciones donde también aparecían fragmentos del cuerpo. De esas escenas surgían fotogramas que más tarde servían como punto de partida para la pintura. La imagen no nace así de una escena previa, sino de una cadena de desplazamientos. Antes de convertirse en pintura, ya ha sido objeto, gesto y resto de una grabación.

Con el tiempo, ese recorrido ha ido cambiando. Los artefactos dejaron de funcionar solo como elementos para activar una acción y comenzaron a integrarse en los cuerpos como máscaras, sombreros o prolongaciones extrañas. Los personajes que aparecen en estas obras

Izango balitz, baina ez bada" erakusketan, Jenni Alvaradok paperean egindako pintura multzo bat biltzen du, serie itxi gisa irakurtzen uzten ez dena. Erakusketa honek Zas Kulturren biltzen duena prozesu luze baten arrasto ikusgaia da, non eskultura, ekintza, bideoa, paisaia eta pintura elkar ukitzen joan diren, bakoitzaren hasierako lekua aldatzeraino. Hemen pinturak ez du aurretik datorrena ordenatzera iristen, haren hondarrak jaso eta berriz zirkulazioan jartzera baizik.

Lan hauetako askoren jatorria hasiera batean grabazioetarako sortutako artefaktu eskultorikoetan dago. Objektu horiek, batzuetan oihalekin, lazoekin edo bestelako materialekin batera, hainbat paisaiatara eramaten ziren eta gorputz zatiak ere agertzen ziren ekintza txikietan aktibatzen ziren. Eszena horietatik fotogramak sortzen ziren, eta gerora haiek bihurtzen ziren pinturaren abiapuntu. Irudia, beraz, ez da aurrez emandako eszena batetik jaiotzen, desplazamendu kate batetik baizik. Pintura bihurtu aurretik, objektu, keinu eta grabazio baten hondar izan da jada.

Denborarekin, ibilbide hori aldatuz joan da. Artefaktuek ekintza bat aktibatzeko elementu huts izateari utzi eta gorputzetan txertatzen hasi ziren, maskara, txapel edo luzapen arraro gisa. Lan hauetan agertzen diren pertsonaiek ez dute identitate egonkor batean finkatzea lortzen. Presentzia

no terminan de asentarse en una identidad estable. Son presencias rituales, atravesadas por una rareza que impide leerlas como mera figuración. No representan una escena: la desajustan.

También el paisaje ha cambiado de lugar. En las piezas más recientes deja de ser un fondo al servicio de la figura y gana espesor dentro de la composición. No acompaña: interviene. Hay en ese desplazamiento una posición clara frente a cierta pintura figurativa que todavía entiende el entorno como decorado. Aquí el paisaje pesa, empuja y modifica la escena. Quizá tenga que ver con el paso de Bilbao a Araia, con un cambio de ritmo y de mirada. En las obras anteriores el gesto parece más veloz y menos atento a lo que rodea. En las últimas, la pintura concede más tiempo a la atmósfera y a la respiración del lugar.

Estas obras no ofrecen una imagen pacificada. Conservan algo inestable, como si cada una recordara todavía los pasos previos que la hicieron posible. Tal vez ahí resida la fuerza de esta exposición: en mostrar que una imagen nunca llega limpia. También el título apunta en esa dirección. *Izango balitz, baina ez bada* nombra una posibilidad que no termina de cumplirse, una forma que comparece sin fijarse del todo.

erritualak dira, figurazio huts gisa irakurtzea eragozten duen arrarotasun batek zeharkatuak. Ez dute eszena bat irudikatzen: desdoitu egiten dute.

Paisaiak ere lekuz aldatu du. Azken piezetan, figuraren zerbitzura dagoen atzealde izateari utzi eta konposizioaren barruan loditasuna hartzen du. Ez du laguntzen soilik: esku hartzen du. Desplazamendu horretan badago jarrera argi bat, oraindik ere ingurunea dekoratu gisa ulertzen duen pintura figuratibo jakin baten aurrean. Hemen paisaiak pisua du, bultzatzen du, eta eszena aldatzen du. Agian badu zerikusirik Bilbotik Araira egindako mugimenduarekin, erritmo eta begirada aldaketa batekin. Aurreko lanetan keinua azkarragoa dirudi eta inguruan dagoenari arreta gutxiago eskaintzen dio. Azkenetan, pinturak denbora gehiago ematen dio atmosferari eta lekuaren arnasketari.

Lan hauek ez dute irudi baketu bat eskaintzen. Ezegonkorra den zerbait gordetzen dute, bakoitzak hura posible egin duten aurreko urratsak oraindik gogoratuko balitu bezala. Agian hor dago erakusketa honen indarra: irudi bat inoiz ez dela garbi iristen erakustean. Tituluak berak ere norabide horretan egiten du. "Izango balitz, baina ez bada" esaldiak bete gabe geratzen den aukera bat izendatzen du, guztiz finkatu gabe agertzen den forma bat.














































ZAS KULTUR • Plaza San Antón, 2 • Vitoria-Gasteiz • www.zaskultur.com • espaciozas@gmail.com

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

araba álava
foru aldundia diputación foral

Vital FUNDACIÓN FUNDAZIOA